

# Hizkuntza arrotzean emanak


Agota Kristofen 'Analfabetoa idazle' euskarara ekarri du Eskarne Mujika Gallastegik, eta Alberdaniak plazaratu • Bere bizipenen bidez, etxeko hizkuntzaz, «hizkuntza etsaiez» eta idazketaz gogoeta egiten du

Ainhoa Sarasola Donostia

«Irakurri egiten dut. Gaixotasun bat bezalakoa da». 4 urte zituenean garaia hitz horiekin deskribatzen du Agota Kristofek, *Analfabetoa idazle* liburuaren lehen letruetan. Aurrerago azaltzen du hungarieraz asko irakurtzen zuela, baita idatzi ere, baina gazterik sorterrria utzi eta Suitzan erbesteratu behar izan zuenean analfabeto bihurtu zela. Frantsesa ikasi zuela han, eta ongi hitz egiteko gai zen arren, analfabeto sentitzen zuela bere burua idazle gisa. Eta, hala ere, frantsesez landu zuen bere literatur obra osoa azkenerako. Idazletzaz, etxeko hizkuntzaz eta hizkuntza «etsaiez» egiten du gogoeta Kristofek kontakizun labur autobiografikoan, eta euskaraz irakur daitezke orain haren hitzak, liburua itzuli baitu Eskarne Mujika Gallastegik. Alberdaniak plazaratu du lana.

*Analfabetoa idazle* 2004. urtean eman zuen argitara Kristofek (Csikvand, Hungaria, 1935 - Neuchatel, Suitza, 2011). Idazleak bere bizitzako hainbat pasarte kontatzen ditu liburuko 11 atal laburretan; Mujikaren hitzetan, «modu labur bezain indartsuan». Herri txiki batean igaro zuen haurtzaroa, gurasoekin eta bi nebekin: Mujikak azaldu duenez, «inolako zalantzarik gabe, haren bizitzako garairik zoriontsuena» izan zen. 14 urterekin, hirira joan behar izan zuen, «gazteak doktrinatzeko esalinismoak sortu zituen barnetegi-tako batera», eta han bizi izan zen lau urteetan «diziplina militarra, libertaterik eza, lehen hizkuntza arrotz inposatua -errusiera- eta familiaren sakabanaketa» ezagutu zituen; «zorigaitza, hitz batean esatearren. Gordean eta ahal zenuen guztietan irakurri egiten zuen, eta idazketa sekretu batez poemak osatzen zituen iragangalduari buruz». Pobreziari aurre egiteko, esketxak idazten zituen, gero eskolan hiruzpalau lagunekin antzezteko, eta sos edo janari apur batzuk lortzeko. «Saririk onena, baina, barre eragiteak ematen omen zien; izan ere, oso garai grisak ziren orduko haiek».

Eta ondorengoak ez ziren samurragoak izango. Barnetegitik



Eskarne Mujika Gallastegik itzuli du euskarara Agota Kristof idazlearen *Analfabetoa idazle*. MAIALEN ANDRES / FOKU

irten ostein, fabrika batean gogor aritu zen lanean, alfonbrak tindatzen. Literatura aldizkari hungariar batean poema batzuk argitaratzea lortu zuen sasoi hartan. Ezkondu ere egin zen, oso gazterik, 18-19 urterekin. «Handik gutxira, herria gobernuaren eta komunisten aurka altxatu zen, baina sobietek matxinada eragotzi zuten, eta berehala etorri ziren errepresaliak». Kristofek eta senarrak, lau hilabeteko alaba hartuta, Austriara egin zuten ihes, eta Suitzara ondoren. Herrialde hartan bizi izan zen idazlea, hil arte.

Mujikaren hitzetan, «ezkortasun beltza darie haren lanei». Deserriratzeko oinaze sakona eragin zion. «Damu omen zen Hungaria utzi izanaz. Bere editoreari esan zion nahiago zuela bi urte presondegi sobietar batean eman izan balitu, eta ez erloju fabrika suitzar batean hogei urte lanean». Berezikki latzak egin zitzaizkion erbes-

teko lehen urteak. «Dena arrotz zitzaien. Deserriak zauri sakona egin zion. Deserroturik sentitzen zen. Familia galdu zuen. Herri baten parte izateari utzi zion. Ezin zen bere hizkuntzan bizi. Erdi bi eginda geratu zen betiko, alienatua, iraganaz gabetua». Harenztzat, goibela zen erbestean eguneroko bizimodua, «hitsa eta hutsa, beti berdina, esperantzarik gabea, bakartia eta hautsia». Hain zuzen, herrimina arintze aldera zen idazten; frantsesez, ikasten joan ahala. «Horrek salbatu omen zuen; idatzi beharra zeukan, bizirik iraungo bazuen».

Horiek eta beste kontatzen ditu liburuan idazleak, «bere ohiko estiloan», itzultzailearen hitzetan: «Esaldi sinpleak normalean, zehatzak, biluziak, deskribapenik apenas, adjektiborik ia ez da ageri... eta halere, hunkidura eragiten du irakurle askorengan, tonua hain da indartsua eta penaz-

koa». Tarteka poesia zipritzinen bat edota ironia ukituren bat ere ageri dela gehitu du. Eta aitortu «sinpletasun itxurazko hori» euskaraz jator eta natural antzemateko eran ematea izan dela bere zereginean erronka nagusia.

## «Izotza bezain gardena»

Beste erronka bat izan zuen hipipede Alberdaniako editore Jorge Gimenez Bechek: Kristofen liburua itzultzeko Anjel Lertxundik «eskaintza gisa jarritako erronka», hain zuzen ere. «Berak bazekien, noski, Alberdaniak estimu handitan duela Kristofen obra; izan ere, Eskarne Mujika Gallastegik Alberdaniarentzat haren hiru liburua itzuli ditu orain arte». Laugarrena da, beraz, *Analfabetoa idazle*, itzultzaileak aurrez euskaratu baitzituen *Koaderno handia* (1997) -liburu «historikoa» euskal letruetan, editorearen esanetan-, *Atzo* (2003) eta *Berdin dio* (2005).

*Analfabetoa idazle* «harribixti» gisa definitu zion Lertxundik editoreari, eta bat etorri zen berarekin. «Haren estilo berezkoaren ezaugarri guztiak izateaz gainera, plus erantsi bat du, eta hori da gogoeta egiteko deliberamendu erabateko baten isla dela». Hizkuntzaren arazoaren muinera zuzen-



**Horrek [frantsesez idazteko erabakiak] salbatu omen zuen; idatzi beharra zeukan, bizirik iraungo bazuen»**

**Eskarne Mujika Gallastegik**  
Itzultzailea

zuzenean doa haren gogoeta asmoa, Gimenezen iritzian. «Alegia, bera arrotz egiten zuena ez zen herrialdea, hizkuntza zen; arrotzu egiten zuen hizkuntzak, arrotzu zuen hizkuntza horretan erabaki zuen idaztea, eta arrotzu zuen hizkuntza horretan lortu zuen lortutako maila literaturgintzan».

Lertxundirentzat «liburu labur handi» bat da; horregatik pentsatu zuen euskarara itzuli beharra zegoela, eta Mujika zela egokiena. Gogorazi zuen Kristof etxeko hizkuntzan ez, «adopzio hizkuntzan zela analfabeto», eta idazten segituko bazuen bere burua hizkuntza arrotz batean egitera behartu zuela -berak «etsai» izendatzen zituen horietako batean-.

Hautu horrek zuzenean eragin zuen haren prosan. Baina gerta liteke miraririk, Lertxundiren us-tez. *Gutxierekin asko* eta *Premia bertute* arauak gogora ekarri, eta idazteko beharra duenak dakien apur horri etekina atera ahal diola adierazi zuen. «Bigarren hizkuntza bat menderatu nahian dabilen baten ahaleginetik ez da Marcel Prust bezalako estilista bat aterako, seguru; baina atera liteke, demagun, prosa bat izotza bezain gardena eta hotza, estilizatua, soberako hitzik gabea, esaldiak aizkora kolpeka bezala ebakitzen dituen, eta,aldi berean, zuzen-zuzenean iristen dena lehendabizi urdailera eta gero bihotzera. Horra Agota Kristoek frantsesez lortutako miraria».